

# **1.GAIA: ZER DA ANTROPOLOGIA?**

## **1.1. GIZARTE ANTROPOLOGIA. ZERTAN DATZA?**

Antropologiak pertsonak aztergai eta gizadiari buruzko azterketa sistematikoa egiten du. Antropologia “fisikoa”, “linguistikoa” eta “soziala”: Gizakiaren ikerketa ezagutza eremu zehatz batera murrizten dela adierazi eta antropologiaren azpi diziplinak sortzen ditu.

Gizarte antropologiak, iraganeko eta gaur egungo kulturak aztertzen ditu etnografiaren bidez etnografia gaur egungo kulturaren deskribapen sistematikoa egiten du.

Gizarte antropologiaren barruan, hiri antropologia, landa eremuko antropologia, garapenaren antropologia, elikaduraren antropologia, antropologia aplikatua...daude.

Norbanakoak aztergai (gizarte kide direnean). Helb: Gizartearen bakartasun/aniztasuna ulertzea eta mundu osoko gizakiak partekatzen dituzten oinarrizko parekotasunak aurkitzea.

Azterketa sistematikoak eta erkatze teknikak erabiltzen dituzte gizartearen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak zehazteko.

Antropologia bereizgarria: ikergaia eta metodologia.

Bi gizarte mota; gizarte sinpleak eta gizarte konplexuak. kultura guztiak balio berdinak dute eta aniztasun kulturala da nagusi.

Gizarte antropologia enpirikoa: aztertuz lortzen da inf, behaketa sistematizatuetik ateratzen duelako inf eta ez dedukzio abstraktuetatik. Esperientzietatik eta errealitatetik.

Baita holistikoa: Azterketa egiterakoan multzo ugari ditu kontuan.

Konparatiboa: Gizarteak konpratu modu sistematikoan; prozedura antolatu/arautu/ zuzendua

Ezagutza transkulturala eskaini: Kulturen arteko ezaugarrien konparaketa; aniztasun kulturalaren berri ematen du ezaugarri kultural guztiak garrantzi bera edukiz.

Laburtuz, kulturaren arteko ezberdintasunak aztertzen dituzte, aniztasun kulturala ezarri baino, transkulturalak haien arteko berdintasunak ere eskaintzen ditu.

## **1.2. GIZARTE ANTROPOLOGIAREN IKASGAIA: KULTURA ETA ANIZTASUN KULTURALA**

Gizarte antropologiaren ikergaia kultura da eta honek hartzen dituen forma eta ereduak askotarikoak.

Ez dago kulturaren def bakarra; gizakien berezko ezaugarria da, animalietatik bereizten gaituena eta ezaugarri unibertsala. Oinarrizko ezaugarri horiei kultura unibertsala deritze.

Beraz, gizakiak bi kultura, oinarrizkoa eta jaso. Kultura existitzeko beharrezkoa da sistema kognitiboa: esanaiak eraiki eta errealitatea ezagutzeko gaitasunak ematen digun sistema.

Sinboloak errealitatea irudikatzeko unitate/ereduak. Elkarri ideia abstraktuak kopmunikatzeko erabiltzen ditugun kontzeptuzko tresnak dira. Hizkuntza, sinboloen sinonimoa da.

Gizakion kasuan egokitzapen kulturala ezinbesteko ezaugarria irauteko. Kultura, ikasia da: *Enkultrazioa*. Kultura beti taldekoa da eta belaunaldi batateik bestera transmititzen da.

Bi modutara bereganatzen dugu, kontzienteki eta inkontzienteki. Kukturaren gauza garrantzitsuak modu mekanikoan ikasten ditugu.

Kultura errealitate egonkor eta aldakorra da: kultura aldatuz doa taldekideak+egoera soziala aldatzean, baina egitura soziala adierazten duten ezaugarriak mantentzen dira.

*Kultura integrala*: Gizarteko kideek ikasitako ideia/ekoizpenak elkarbanatzen dituztenean.

Kulturak osatzen dituen elementuak materialak (etxea) eta ez materialak (sinesmen) dira.

### **1.3.METODO ANTROPOLOGIKOA: ETNOGRAFIA ETA ANALISIA**

Metodo antropologikoa 2 urratsez osaturik; Fase etnografikoa eta fase etnologikoa.

#### **1.3.1. Metodo antropologikoaren lehenengo fasea: fase deskriptiboa eta etnografia**

Lekuan lekuko lana aztertutako fenomeno izaera. Edozein, fenomeno kulturalen 1.mailako ikerketa pertsonalari deitzen zaio.

Gertatzen den tokian eta momentuan egiten da. Komunitatean sartu bizitzera aztertzeko

Antropologia diziplina enpirikoa: Ezagutza eguneroko esperientzian jasotzen da. Lehenengo fasean errealitate sozial osoaren deskripzioa egiten da.

Lehenik behaketa sistematikoa eginez gizataldearen jarraipena egin beharko da. Inf jasotzeko teknika; behaketa parte hartzailea, landa kuadernoa, bizitza kontakizuna...

Landa lanean inf IN SITU jasotzen da eta komunitate edo herrialde horretara joan aurretik hasten da, inguruko hainbat alderdi teorikori buruzko ezagutza sakona behar duelako.

Etnologoa, gizartera joan bizitzera, erakundeak eta balioak aztertzeko. Bestearekiko erakusten dugun jarrerak, hark gurekiko erakutsiko duen jarrera baldintzatu.

Lanaren bi euskarriak behaketa parte hartzailea eta landa koadernoak dira.

Behaketa parte hartzailea aztertzen ari garen pertsonen kokaleku fisikoaren eta eguneroko jardueren gaineko deskribapen zehatzak. Hurbiltze arazoak gainditzeko konfiantza behar.

Landa koadernoan, inf guztia biltzen du modu sistematikoan. Irizpide nagusia, inf modu argi eta zehatzean biltzea izango da eta inf. erabilgarria lortzeko hainbat teknika daude.

*Bizitza kontakizunetan*, gizarte osoaren inguruko inf. jasotzea. Talde osoaren adierazgarriak ezagutzea zen helburu nagusia.

*Berriemaile pribilegiatua*, tokiko kulturaz inf aberatsago+sakonagoko perts. Hauek dagokion gizarteko kultur ereduen gaineko barne ikuspegia eman antropologoei.

*Elkarrizketa*, inf. biltzeko askotan erabiltako teknika. Besten iritzia ezagutzeko.

*Egitura gabeko elkarrizketan*, mugatu gabeko galderak kult buruzko ikuspegia lortzeko. Honek, ikertzailearen aldetik jarrera enpatikoa eskatzen du eta ahalik eta neutralena izatea.

*Elkarrizketa erdi zuzenduak*, libreki hitz egin arren aurretik prestatutako galderak ere egiten. Entzute aktiboa jorratzu: momentuan prozesatu, laburtu eta galderak egiteko gai izaten dira.

Antropologoek aztergai dute gizataldea osatzen duten pertsonengandik jasotzen dute informazio osoa. Bilerak taldekoak ala banakoak izan daitekeenak.

Taldean erabiltzen den teknika talde eztabaida: zailagoa esperientzia handiagoa eskatu.

Horrela, fenomeno sozialari buruzko deskribapena lortu eta hurrengo pausua analisi fasea.

### **1.3.2 Metodo antropologikoaren fase analitikoa edo etnologikoa**

Jasotako inf mota guztiekin arreta handiz aurreiritzi, itxurakeri eta hutsegiteak murrizteko.

Txosten honetan oinarrituz datuen analisisa egingo da eta datu hauek ateratako ondorioekin alderatu behar dituzte.

Txosten etnografikoa azterketa antropologikoaren lehengaia izaten da eta garrantzitsuena, azken fase honetan, aurreko fasean lortutako datu etnografikoen azterketa eta konparaketa.

Analisiaren ondorioz, antropologoak ikertu duen fenomeno sozialaren inguruko teoria eta ondorio berriak lortuko ditu.

Izan ere, antropologia aplikatua deritzonak edozein gizataldetan esku hartze programa bat diseinatzeko testuinguru horri buruzko ezagutza eskaintzen du.

## **2.GAIA. KULTURAREN NOZIOA**

### **2.1.KULTURA ETA KULTURAK**

Oinarriko kontzeptua da, ez da soilik kultur jaso. Edozein herri/gizatalderen bizimodua da.

Gizarte bateko kideek ikasitako eta elkarrekin bat dituzten ideiei/ekoizpenak dira, kultura kideek partekatzen duten bizimoduari deritza eta belaunaldiz belaunaldi balio/sineste/arauak bildu. Kultura toki guztietan dago.

Bi ikuskera mota daude; lehenik, kultura gizakiaren berezko ezaugarritzat hartzen duena eta bigarrenik, testuinguru bakoitzean gertatzen den zehaztasunak.

#### **2.1.1 Kulturaren ikuspegi unibertsalista kultura**

Kulturaren interpretazio unibertsalistak ilustrazioaren baitan du jatorria.

Kultura aztertzearen azken helburua, espeziea batzen zituen aspektuak zehaztea zen, analisi konparatiboaren bitartez unibertsal kulturalak ezartzeko.

Kultura guztiz gizatiarra, ezinezkoa da kultura gabeko gizakia. Ezaugarri unibertsala da eta ingurura egokitzeko beharra du.

Gizakia. Biologikoki bukatu gabeko animalia da, gizakioi falta zaigun inf. biologikoa gizataldean biziz osatzen dugu.

Listonek kultura herentzia sozialaren sinonimotzat hartu zuen. Jaiotzen garen momentutik aurrera daramagun ikasketa prozesu honi enkulturazioa deritza.

Norbanakoen gainetik dago eta kolektiboa da beti. Emaizak ezberdinak beti, kultura barneratzen dugu baina giza ekintzei esker gure modura egokitzen dugu.

Kultura toki guztietan dagoenez inoiz amaitzen ez den prozesua da eta inkontzienteki erabat barneratu eta bereganatu baitute.

Kultura estatistikoa eta dinamikoa da, aldaketa kultura guztien ezaugarria da. Oinarriko sinesmenak, balioak eta ezaugarriak eraldatu gabe mantendu behar dira.

Kultur nortasuna kulturaren esentzia osatzen dituzten ezaugarri hauetan oinarrituko da. Praktika diskriminatzailea da eta giza ekintza aldi berean.

Holistikoa da, gauza asko ditu kontuan. Osatzen dituzten elementu eta ezaugarriek sist. integrala osatu. Kultura integrala da, gizatalde guztien bizitzaren eremu guztietan baitago.

### **2.1.2. Kulturaren ikuspegi partikularista - kulturak**

Ikuspegi partikularista Erromantizismoan garatu zen. Haren interesa, kultura espazio eta denbora zehatz batean zehaztea da.

Kultur partikularitasunak aniztasun kulturalaren azterketari ekarpen nabariak egiten dizkio. Gizatalde bakoitzaren tradizio historikoaren ondorioz sortzen da aniztasuna.

Gizaki moduan batzen gaituena eta komunean duguna, aniztasun kulturala da. Errealitatearen parte da eta kultur zatiketak/muga zurrinak ez dira existitzen.

Kulturen arteko ezberdintasunak kualitatiboak, bakoitza bere testuinguruan ulertu behar dena.

### **2.2. KULTURA MATERIALA ETA KULTURA IDEAZIONALA**

Bi kultura motak kontuan hartzen dira baina garrantzia batek.

Materialismoak kulturen objektuei eta teknologiari jartzen dio arreta.

Idealismoak kultura osatzen duten elementu ez materialetan eta ideietan jartzen du arreta.

Kultura baten osagarri ideazionalak, ideiak, helburuak, esanahi kolektiboak, balio, arauak. Ideiak, sinboloak/sistema sinbolikoak. Kultura egoteko, pentsamendu sinbolikoa egon behar.

Ikuspegi materialistak, edozein kultura erreminta eta objektu ezberdinez osatzen da.

Hauetako esker, gizatalde horretako kideen arteko harremana gertatzen da (kotxea).

Antropologo kognitibistek edo sinbolikoei uste dute gizatalde baten egunerokoa osatzen duten elementu oro ideien emaitza dela. Hauentzat kultura materiala, kultura idealaren emaitza da eta, beraz, bigarren mailako gauza. 2. mailakoa izan arren beharrezkoa dela.

Gizatalde batek sortutako objektuak eta teknologia gizatalde horren ideia politiko, zientifiko, ekonomiko eta erlijiosoaren adierazgarri dira.

### **2.3. KULTURAREN INGURUKO DEFINIZIO ANTROPOLOGIKOAK**

E. Tylor britaniarrak; gizakiak gizarteko kide moduan bereganatutako jakintza, sineste, arte... gizartean bereganatutako jarrera/gaitasunak barne hartzen dituen osotasun konplexua da

Alfred Kroeber, biologikoaren, psikologikoaren eta organikoaren ginetik dauden gizakiaren inguruko gauzen multzoa da kultura. Azpimarratu: kultura naturatik at dagoen errealitatea.

Clifford Geertz, sinbolo bihurtu eta historian zehar transmititzen diren esanahien ereduak; sinbolikoki adierazten diren ikusmolde jarauntsiek osaturiko sistema bat; ikusmoldearen aurrean dituzten jarrerak komunikatzen/betikotzen/garutzen dituzte. Sistema sinbolikoen multzo gisa def.

Marvin Harris, gizatalde baten bizitzeko estilo totala, sozialki bereganatua eta pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko modu arautuak barne hartzen ditu.

## 2.4. SINBOLOAK ETA SISTEMA SINBOLIKOAK

Errealitatea irudikatzeko erabiltzen ditugun esanahiez osatutako hautazko unitate/ereduak. Ideia abstraktuak, komunikatzeko erabiltzen ditugun kontzeptuzko tresnak. Hizkuntza.

Hizkuntza sinbolikoen bidez gureganatzen ditugu jokamolde eta kontzeptu gehienak. Gertaera konplexuak isolatzeko ahalmena, sinboloen bidez irudiak eta esanahia sortu.

Sinboloak *arbitrarioak*: beraien esanahia taldean erabakitzen da, ez da prozesu naturala. Sinboloak sortzeko ahalmenaren bidez gizakiok esanahiak ikasi eta sor ditzakegu.

Komunikazio sinbolikoez osatutako arau/kontzeptu abstraktuak ikas ditzakete. Ikaskuntza sinbolikoak aukera mugagabeak ditu. Gizakion ikaskuntza gehienak sinboloetan oinarritu.

Jaiotzen garenetik arau eta kontzeptuak sinboloen bidez ikasi, horiek era askotan erabiliak. Hauek erabiltzeko adimena eta pentsamendu arrazionala eta abstraktua beharrezkoak.

Sinboloak *abstraktuak*:, sinbolo askok indar handiko eragina dute jendean jokamoldean. Giza kulturaren ahalmena sinbolizatzeko ditugun hizkuntzazko/ezagutzazko gait. oinarritu.

Kulturaren transmisioari esker, besteren artean, bizirauten, besteekin harremanak izaten, gure gizartea antolatzen eta gurtu beharreko jainkoak bereizten ikasten dugu.

*Geertz* bezalako hainbat antropologok kultura sinbolo bihurtu eta historian zehar transmititzen diren esanahien eredu baten moduan definitzen dute.

Sinbolikoki sistema bat izango litzateke eta ikusmolde horien bitartez gizakiek bizitzaz duten ezagutza eta haren aurrean dituzten jarrerak komunikatzen, betikotzen eta garatzen dituzte.

Kultura gizatalde baten sistema sinbolikoa aldakorra da: sinbolo baten esanahia alda daiteke produzitzen duen testuingurua aldatzen bada.

Gizakiok berezkoa dugun kultura izateko ahalmena, ikaskuntza sinbolikoa deritzo. Hau gure hizkuntza gaitasunean eta sinboloak erabili/ulertzeko dugun ahalmenean oinarritzen da.

Kultur aniztasunean, kultur ezberdinetako sinbolo sistemek topo egitean talka kulturala: Gurea ez den beste kulturaren sistema sinbolikoa interpretatzeko zailtasunagatik sortua.

Gizarte antropologia kultura zehatz baten sinboloak eta sistema sinbolikoak deszifratzen aritzen da.

### **3. GAIA: ETNOZENTRISMO ETA ERLATIBISMO KULTURALA**

#### **3.1.KOMUNITATEA**

Bi diziplina hauen behaketa unitatea. Komunitatea gizartearen barruan aurki daitekeen oinarrizko unitate soziala. Komunitatea osotasuna, horregatik ezaug guztiak kontuan hartu.

Komunitatea unitate sozial murriztua da, ekonomia partzialki itxi bat du eta lurralde zehatz batean bizi da bertatik bizirauteko behar duena lortuz.

Lurraldea gizatalde batek sozialki eraiki du eta honekin estuki lotua sentitzen den espazioa. Espazioa: zonalde baten ezaugarri fisikoen adierazlea. Lurraldea/tokia: bertako ezaugarri kulturalen adierazteko.

Giza ekintza komunitatearen ezaugarri garrantzitsua da honen bitartez talde kohesioa lortu. Talde kohesioaren berrespenak komunitatearen jarraikortasuna indartzeko balio du.

Komunitatearen giza harremanak bereziak: berezko izaera dute eta senidetasun harremanetatik baino haratago doaz.

Taldean partekatutako nortasun sentimendua tradizio/herentzia sozialetik dator. Tokiko sinboloa (ikurrina).

Kontzienteki/inkontzienteki gertatzen da; komunitateak haien nortasunagatik festak, ekintzak... prestatu, beharrezkoa ikusi eta kohesioa eragiten dutelako.

komunitatea def.; erlazio sozialen sistema bat da ondo definitutako espazio batean denboran zehar eta partekatutako interesei erantzuna diona.

Komunitate hitzak, gizarte primitibo edo sinplearen sinonimotzat hartu izan du. Estatu gabeko komunitatea denez haien arteko gatazka ugari daude, ez dagoelako "kontrol" bat.

#### **3.2. ETNOZENTRISMOA**

Jarrera mota bat da; gizarte/ kultura baten arau, balio, pentsamolde, jarduteko moduak... arbuiatzen eta norberarena ez bezalakoak direla sinestean datza. Etnozentrismoa guztiok dugun jarrera da, guk egiten duguna hoberena dela pentsatzen dugulako.

Etnozentrismoa jarrera unibertsala da eta norberaren kultura erreferentzia baliotzat ezartzean datza.

Etnozentrismoa, gizarte zientzien kasuan, beste kulturak eta, pertsonen jokaerak eta sinesmenak norberaren eredu kulturalaren arabera aztertzean datza.

Metodo antropologikoa oso lagungarria izan daiteke etnozentrismotik aldentzeko.

Lehenengo antropologoek etnozentrismak ziren eta beste kulturak aztertzean beraiena baino txarragoa izango balitz bezala hartzen zituzten.

Etnozentrismoaz ohartu eta salatu zuen lehenengo antropologoa Malinowski izan zen. Kasu honetan, "besteak" proiektu programa, politika edo esku hartze baten erabiltzaileak dira.

Bestearekin lan egiteak jarrera behatzailea izatea eta norberaren izaera eta kulturarekin kritikoak izaten jakitea dakar.

### **3.3. ERLATIBISMO KULTURALA**

Franz Boasek asmatu zuen etnozentrismoa gainditzeko. Etnozentrismoa izan zen lehen antropologoek buruturiko akatsik larriena kulturaren ikerketan.

Helburua akats hori gainditzea izan da eta horretarako erlatibismo kulturala delako printzipio teoriko eta metodologikoa sortu zen.

Erlatibismo kulturalaren arabera, bakoitzak bere arau eta baloreen arabera ulertu behar da.

Etnozentrismoa eta erlatibismoa, aniztasun kulturala onartzen dute baina horren aurrean ikuspegi kontrajarria erakusten dute.

Erlatibismoa kultura bat ezberdin baten ikuspegitik ez ikertzea eta epaitzea da.

Antropologiak proposatzen duen arau metodologikoa bestearen lekuan jartzearen ahalegina egitea da. Erlatibismoaren arabera ez dago ezaugarri unibertsalik, kultura bakoitzak ezberdina delako eta bere testuinguruan ulertu behar delako.

Planteamendu honi jarraituz, kultura bakoitzetik at erabiltzen diren ideia eta kontzeptu guztiak etnozentrismak dira.

Ezaugarri unibertsalak ez badaude ezin dugu kulturen arteko lotura lortu eta beraz kultura bakoitza berarekin biziko luke eta ez legoke konexiorik munduan zehar.

Ondorioz, ezinezkoa litzateke kulturak elkarri hurbiltzea, komunikatzea eta ulertzen saiatzea.

Kultura guztiek gizakien oinarrizko eskubideen kontra egin dezaketen hainbat praktika edo jarrera izan ditzakete eta hauek ez dute zertan onargarriak izan behar.

Hori bai, hauek kenduta, ohitura, balio eta sinesmen guztiek errespetu bera merezi dute.



## **4. GAIA: POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIALAREN INGURUKO HAUSNARKETA ANTROPOLOGIKOA**

### **4.1. BAZTERKETA SOZIAL ETA KULTURALAREN INGURUKO TEORIAREN OINARRIZKO PREMISAK**

Marjinazio prozesuak ulertzeko, mantentzen laguntzen duten baldintzak ezagutu behar dira. Lehenik eta behin, ezin da egoera naturala bezala ulertu. Bigarrenik, marjinazioa, antolakuntza sozialaren ondorioa beraz, berezko izaera eta adierazteko forma dauka.

- Marjinazioa erabaki politiko eta botere estrategien emaitza da.
  - Kultura eta sinboloak ere izan daitezke marjinazioaren kausak.
  - Marjinazio, bazterketa eta diskriminazioa ez dira sinonimoak nahiz eta horrela erabili.
- Marjinazio soziala: kanporatze prozesua, hau da, gizatalde edo subjeto indibidualak ordena sozialetik sistematikoki eta modu integral batean ateratzeko prozesua da, arrazoiak anitzak dira.
  - Diskriminazioa: bereizketa prozesua da, botere erlazioetan oinarritzen da eta prozesu honetan kolektibo edo subjeto indibidual jakin batzuen berdintasun printzipioa urratzen du.
  - Bazterketa soziala: bereizketa eta marjinazio prozesu zehatz bat da, batez ere arlo ekonomikoa eta geografikoaren eraginez.

Marjinazioa etengabe aldatzen ari den prozesua: gizarteak dispositiboetan eragindako boteren arabera aldatzen da.

### **4.2. BAZTERKETA SOZIAL ETA KULTURA KONTZEPTUAREN BILAKAERA**

XIX. Mendearen erdialdean, ezberdintasun sozialaz hitz egiten hasi zen. 1970 ko hamarkadatik aurrera ezberdintasun sozial modu berriak agertu ziren.

Gizarte batean gizartearen segmentu batek bertan parte hartzeari usten dioenean, bazterketa sozialari buruz hitz egiten hasten da.

Talde etnikoak sortzen duten bazterketa izendatzeko, segregazioaren edo bereizketaren ideia agertzen da. Hau da, talde etnikoak ere bai bazterketa eragiten dute haien artean.

Faktore ezberdinen eragina:

Bazterketan: F. Ekonomikoak, merkaturako sarrera eta espazioaren antolamendua.

Diskriminazioa: Botere F., berdintasun printzipioaren haustea.

Segregazioa: Kultur eta etnia F.

Lewis-ek ondorioztatu zuen marjinazioa funtsean kulturala zela eta (pobreziaren kultura) kontzeptua erabili zuen.

Arazo kulturala irtenbide bakarra baztertutako kolektiboen heziketa bidezko integrazioa zen. Bi teoria hauek erreformistak dira gizarte minorizatuen arazoak gizarte hegemonikoan integratzen saiatzen dielako.

Idea hauen inguruan joan ziren garatzen marjinazioarekin amaitzea helburu zuten esku hartze linea guztiak.

Ezberdintasun sozialaren eredu berriak: marjinazioaren arazoa gizartearena izatera pasako da eta ez norbanakoarena.

Ezaugarri kulturaletan jartzen da arreta, kontuan izan behar dena gizartearen baliabidetarako sarbide moduak dira.

Lehen aldiz, marjinazioa gizarteko hainbat taldek gizarte nagusiaren baliabide sozialetara, arauetara, ekintzetara... heltzeko duten aukera falta moduan definitzen da.

Pobreziaren teoriaren arabera, pobreek garatzen ari zen merkatu ekonomiara egokitze arazoak zituzten pertsonak ziren, hau da, norbanakoaren errua zen.

Estatuak moldatu gabeko norbanakoen kargu egin zen hauentzat hainbat internamendu zentro sortuz.

Arrazoi ezberdinengatik gizarte dominanteko lan merkatuan edo kulturen integratu ez diren pertsonak baina integrazioarekiko jarrera positiboa dutenak. Hauek, egokitze aukerak badituzte oraindik. Bi pobrezia mota daude eta hau bat da.

2.(Pobre duingabea) jokamolde patologikoa erakusten dutenak dira, gizarte dominantearen balore sistemara egokitze arazoak dituzte eta ez dute horretarako asmorik ere aurkezten.

Marxismoak logika soziala indibidualaren gainetik kokatzen du. Marxismoa pobrezia kapitalismoaren ondorioz hedatzen diren erlazio sozialaren emaitza da.

Marx-ek bi subjektu moten artean berezitasunak: Klase ideologia barruan daramatenak, bestaldetik, langile duingabeak.

#### **4.4.POBREZIA BAZTERKETA SOZIALAREN ITURRI BEZALA**

Pobrezia besterik gabe ekonomikotzat har dezakegu edo perspektiba zabalago bat mantenduz beste dimentsio soziokulturalekin erlazioa dezakezu.

Existitzen den pobrezia bakarrik ez da ekonomikoa: txirotasun kulturala, ideologikoa, harreman txirotasuna eta bestelako txirotasunak ere existitzen dira.

Ez dago bakarrik ekonomiarekin zerikusia duen txirotasuna, beste txirotasun motak daude.

Sistema kapitalista pobreziaren errudun. Kapitalismoa polarizazioa da, aberastasunaren kontzentrazioa. Eskaintzen diren konponbide guztiek ez dituzte kapitalismoaren oinarriko printzipioak zalantzan jartzen, ezta bere estruktura ere.

(Laissez faire) bakoitzak bere etekina handiena bilatzen badu, merkatuaren esku ikusezinak denen onerako den oreka lortuko du.

Hazi egin behar, gero eta gehio, ekonomiak muga gabe hazi behar. Ekonomi hazten bada, denentzat da hobea, hazkundeak gora egiten badu, enplegu+aberastasuna ere haziko da.

Ekonomiak pribatua izan behar du. Sektore publikoak privatizatu egin behar dira, ondasunen eta prezioen banaketa egokiaren arduradun bakara merkatua delako.

Ez dago (epe luzeraik) eta, hortaz, ez dute garrantzirik epe ertain eta luzerako planifikazio ekonomikoek, sistemak berehalako irabaziak behar ditu.

Gizatearen( kreazioaren erregeak) dira eta naturak bere zerbitzura egon behar du, hemen eta orain, bere irabaziak ahalik eta hoberenak izan daitezten.

## POBREZIA MOTAK

Pobrezia izendatzeko izen lehunagoak erabiltzen dira modu horretan ez da hain beste arazoa dagoela ikusten eta sistemaren boterea sendotzen da.

Bestetik pobrezia faktoreetan arreta handiago ipini beharko genuke.

- Txirotasun-mugak: termino monetarioetan oinarritutako ardatz bat definituz markatzen da: maila batera iristen ez dena:pobre. Mugak ezartzen dira, nork ezarria?
- Txirotasun larriaren arriskua: oinarritzko beharrianak betetzeko objektiboki nahikoa ez den diru sarrera ezartzea da.
- Metaketaren pobrezia: bizi maila egokia izateko beharrezkoak diren kontsumorako ondasunetara heltzeko ezgaitasuna.Bizi baldintzetan prekaritate egoeran bizitzea.
- Ongizate faltarako arrisku egoerek: gizarte jakin batean esperotako ongizate maila minimoak mantentzeko beharrezkoak diren diru sarrera nahikorik ez duena

## 4.5. ONDORIOAK

Eredu ekonomiko kapitalistaren krisiak pobre berriak, bazterketa arriskua sortu. Esku hartze batzuk bazterketa gairatuzera zuzendu behar eta beste batzuk , zaugarritasuna lantzeraz.

Esku hartze egoki bat ezinbestekoa:Gizarteratzea prozesu bat izatea.

Zaugarritasun egoeran edo arriskuan bizi diren pertsona/gizataldeekin esku hartzeak egitea hauen bazterketa ekiditeko.

Hau da, esku hartze integrala izan beharko du, arlo guztiak modu koherente batean tratatuz.

Ondorioz, bazterketa sozial kate luze baten amaieran dagoen errealitatea da. Gizarte langintza beharrezkoa izango da, bazterketa horrekin amaitzeko.

## **5.GAIA: GENERO SISTEMA ETA TEORIA FEMINISTA EGITATE SOZIALEN AZTERKETAN**

### **5.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK**

Genero sistemen analisia estrategikoa da gizarte langintzarako. Genero sistemak ezaugarri biologikoetan oinarrituz ezberdintasun sozialak ezartzen dituen sistema da.

Gizarteak, itxaropen ezberdinak sortzen ditu gizon eta emakumeengan.

Sozializazio bereizgarriaren bitartez norbanakoei haien sexuaren arabera rol ezberdinak esleitzen zaizkie eta horren arabera gizarteak zereginak ezartzen ditu.

Genero rola, pertsonen gizartera egiten dituzten ekarpenak, garatzen dituzten ekintza zehatzak eta gaitasun eta jarrerak arautzen dituzte.

Rol banaketa hauek hierarkizatuak daude eta ondorioz, genero sistema honek ezberdintasun sozialak sustatzen dituzte.

Sexuen arteko posizio soziala ez da simetrikoa eta hori gauzatzen da sistema patriarkala delako. Sistema patriarkala boterea, eskubideak eta onurak sistematikoki gizonengan ezarri.

(1960) Feminismoa sistema patriarkala hau sustatzen dituen ideologia eta estrategiak erakutsi eta salatzen duen mugimendua da.

Ekarpen handiena genero sistemaren teoria: Sexua,gizon/emak. ezberdintasun biologikoak. Generoa masku/femenino kategoria kultural eraikuntza.

Genero sistema eraikuntza soziala da eta gizartea modu hierarkikoan antolatzen du, maskulinitasunaren hegemonian oinarrituz.

Feminismoak ere sexuek egiten dute espazioaren okupazio ezberdindua salatu du.

Aukera berdintasunaren helb: gizon/emak gizartearen esparru guztietan aukera berdinak.

Gobernu maila ezberdinetan aurrera eramaten ari diren politika, lege eta programa guzti hauek berdintasun formala edo legala garatzea ekarri du.

## 5.2. TEORIA FEMINISTAK: ANTROPOLOGIAREN EKARPENAK

Feminismoa mugimendu filosofiko gisa ilustrazio garaian sortu zen Olympe de Gouges edo Mary Wollstonecraft bezalako emakumeei esker.

Helburu nag emakumeak hezkuntza jasotzea eta bozkatzeko eskubidea izatea zen. Sufragismoa emakumeen bozkatzeko eskubidea aldarrikatzen zuen.

Eztabaida nagusia generoen arteko berdintasunaren eta ezberdintasunaren artekoa izan zen.

- Lehenengoak, berdintasunaren feminismoak, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatzea bilatzen du.
- Bigarrenak, ezberdintasunaren feminismoak, emakumeak gizatalde sozial gisa sortzen dituzten ezaugarri soziokulturaletaz gain gizonengandik bereizten dituzten ezaugarri biologikoak ere ezin direla ukatu eta goraiatu behar direla defendatu.

Emakumeen antropologia sortu zen. Helburua munduko kultur ezberdinetako emakumeen aniztasuna erakustea. Generoaren antropologia sortu eta aztergaia: generoen arteko erlazioak eta feminitate maskulinitate kategoriak zein emakume gizon kategoriak aztertzea.

### 5.2.1. Androzentrismoa eta patriarkatuari kritika

Women studies sortu zen eta bertan emakumeak ikertutako lanak sartu ziren, helb: emakumeek gizartean zuten xede eta garrantzia erakutsi+hauen boterea aldarrikatzea.

Lehenengo ekarpena lan guztien errebisioa eta kritika. Lan antropologikoez erakusten zuten generoen arteko asimetria hau maila etnografikoan nahiz etnologikoan ikusi zitekeela. Hau da, ordura arte ikusten ziren lanak gizonezkoenak ziren.

- Androzentrismoa mundua begiratzeko eta gertaera sozialak interpretatzeko modu zehatz bat da.

Izan ere, testuinguru zientifikoan eta ezagutzaren produkzio testuinguruan ematen den generoen arteko erlazio asimetrikoa da androzentrismoa.

Eta asimetria sistema patriarkalaren ondorioa da. Historian zehar boterea gizonengan dago batez ere bi arrazoiengatik;

1. Sexualitatearekin loturiko interesa batengatik
2. Erreproduzioarekin loturiko interesa

Honen arabera, patriarkatua gizonek emakumeengana sustatutako politika sexual baten emaitza da eta estrategia eta jarrera ezberdinez osatuta dago.

Sexu batek bestearenganako botere hau sustatzeko bi kategoriak, gizona eta emakumearena, ezberdinki enkulturatzea ezinbesteko da.

Baina patriarkatuak ezartzeko dituen moduak ez dira berdinak munduko toki guztietan; eraso fisikoa, eraso psikologikoa...

### **5.2.2. Sexismoa eta matxismoa**

Sistema patriarkala mantentzeko eta aurrera egiteko hau elikatzen duten ideologia (matxismoa) eta praktikak (sexismoa) egotea beharrezkoa da.

Matxismoa sistema patriarkala sustatzen duen ideologia, jarrera eta diskurtsoa da. Gizonezkoen nagusitasuna eta emakumeen diskriminazioa eta gutxikeria aurki dezakegu.

Sexismoa estrategia anitzez osatua eta hauei esker ezartzen da sistema patriarkala. Praktika sexisten helb. emakumeak gizonenganako gutxigotasun egoeran mantentzea da.

Lau dira sexismoak gizartean ezarritako estrategia motak: emakumeak ezkutatzea gizartearen hainbat esparrutan emakumeak eta haiekin lotura duten aspektuak ez aipatzeko joera sistematikoa da.

Emakumeak gizatearen hainbat esparruetatik modu kontziente nahiz inkontziente batean apartatu gertatzen direnean bazterketa jasaten ari dira.

Emakumeen menderatzea hauek behin eta berriz izaki pasiboa eta desiorako objektu moduan aurkezteko joeratik ere sortzen da.

Emakumeei, hauek egiten dutenari balioa kentzeko joera ere oso zabalduta dago.

### **5.2.3. Genero Sistema**

Genero sistema gizartea antolatzeko edo egituratzeko faktorea da. Gizartea osatzen duten bi azpitalderi, gizonak, emakumeak, ondo bereiztutako rol sistema bat esleitzean datza.

Gizarte gehienek sexuaren gaineko rol banaketa egiten dute et diferentzian oinarritzen badira ere praktikan, ezberdintasun soziala ere sortatzen dute.

Gizartea honela antolatzeko modua hierarkikoa da et horren azpian generoen balorazio bat dago; maskulinoak balio eta garrantzia gehiago femeninoa baino.

1970.hamarkadan antropologia feministak garatutako analisi transkulturalari esker zera ondorioztatu dezakegu; sexuaren arabera markatutako rolak oso ezberdinak zirela kultura batetik bestera.

Margaren Mead lan guzti horien azterketa eta gero antropologiak, fenomeno ondorioztatu zuen rol horiek, guztiz eraikiak edo kulturalak zirela.

Generoa kontzeptuak, gizon eta emakumeen izaera biologikotik ez zetozen ezaugarri guztiak izendatzeko erabili ziren, hau da, oinarri biologiko batetik.

Aitzitik, generoa sozialki definitutako gizon/emakumeen kategoriak dira eta maskul/femen denaren pertzepzioa dakarte. Denbora eta espazio bakoitzean aldatu daitezke.

Gizarte gehienetan gizon eta emakumeen kategoriak banatzen dira ezaugarri biologikoetan oinarrituz eta horren arabera zenbait jokabide eta ezaugarri ezartzen zaizkie, genero ereduak sortuz.

Genero eredu hau hierarkikoa izaten da eta gizartearen egitura osoaren oinarrian egoten da.

Generoa sexuan oinarritzen dena, pertsona bakoitzak gure sexuari jarraikiz egin dezakegunaren eta egin ezin dugunaren adierazlea da.

Generoak, hainbat arau, tradizio eta balio bereganatzen ditu. Modu horretan, beraien generoaren arabera jokatzeko ez duten pertsonak zigor soziala jasotzen dute maiz.

Generoa ez da bakarrik pertsona definitzeko aukera posible bat baizik eta pertsona hori gizartearen barruan irispide ezberdinak bati jarraituz, posizio soziala emateko estrategia, hau da, gizonak posizio soziala altuagoa emakumeak baino.

Genero sistemaren ekarpenik aipagarriena naturalizazioaren gainditzea izan zen.

Gizarte modernoak gizarte berdinak izateko baliabideak garatu zituzten ilustrazioaren ondorioz, baina ez zen benetako berdintasuna.

Gizartean gizon eta emakumeen artean zeuden desberdintasun sozialak irizpide biologikoen bidez justifikatzen ziren.

Naturalizazioaren ideologia gertaera sozialei azalpen biologikoak ematen saiatzen da, gizataldeen ezberdintasunak aldaezinak balira moduan azaltzen ditu.

Baina errealitatean, desberdintasun soziala guztiz arbitrarioa da, hau da, eraldatua izan daiteke. Hau genero sistematik eta sistema patriarkaletik abiatuz azaldu daiteke soilik.

Generoak sexuen arteko diferentzietan oinarrituz egiten den eraikuntza kulturalari egiten dio erreferentzia.

Praktikan, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna dakar gizartea modu hierarkiko batean antolatzekeko estrategia izanik.

Generoak, gizon eta emakumeen arteko ustezko diferentzia biologikoak abiapuntutzat hartzen ditu gizartearen esparru guztietan maskulinoa eta femenoaren arteko haustura sortzeko. Errealitatea da eraikuntza soziala eta kulturala dela.

Generoa, adina, etnia edo erlijioa bezala nortasun kategoria garrantzitsua da. Feminismoak baieztatzen duen sexuaren inguruko ikuspegi dualistak, ez ditu kontuan hartzen hermafroditak edo transexualen kasuak.

1990tik aurrera, genero ezberdintasuna guztiz ezabatzekeko ahalegin handiak egin zituen feminismoak. Horretarako, sexua, generoa eta sexualitatearen arteko erlazioen azterketak areagotu ziren.

Diskurtso feministaren barruan honekin bilatu nahi zena generoa edo sexualitateagatik gizartetik modu sistematik batean baztertuak geratzen diren kolektiboak kontuan hartzea.

Gizatalde guzti hauen arazoek erakusten zuten generoek sortutako bazterketa egoerak askoz anitzagoak eta konplexuagoak zirela ohiko emakumeen eta gizonen arteko banaketa baino.

Arazo guzti hauek gainditzeko, teoria feministak norbanakoak, praktikan, generoari dagokionez “migratzaileak” garela hausnartzen hasi zen.

Migratorioak zeren gure bizitzan zehar, gure sexuarekin bat ez datorren nortasun generiko garatu edo indartu dezakegu momentu ezberdinetan.

Generoak dakarren errealitatearen interpretazio dikotomiko horrekin apurtu nahian, azken urteetako feminismoak maskulinitatearen azterketari ekin dio.

Eredu ezberdinak daude baita maskulinitatean ere eta eredu horiek hierarkikoki daude antolatuak.

#### **5.2.4 Sexuaren araberako lan banaketa**

Sexuaren araberako lan banaketa azken binomio horretan oinarritzen da. Sexu bakoitzari lanarekin lotutako rolak eta zereginak esleitzen zaizkio askotan ere, beste sexuari betetzea debekatzen zaizkionak.

Horregatik, lan rolak eta zereginak sexuaren arabera banatzea ez da ezer naturala baizik eta sozialki eraikitako errealitatea.

Ilido beretik, Amoroak baieztatzen duen moduan, ezkontza ezinbesteko erakundeetan bilakatzen da.

Ezkontzaren bitartez bi sexuen arteko elkarrekiko menpekotasuna ziurtatzen da.

Lanaren sexu banaketak errealitate hau sustatzen laguntzen du eta emakumeak sozialki eta ekonomikoki menperatzeko estrategiatzat har dezakegu bere ondorioengatik.

- Erantzunkidetasuna: emakumea da lan feminizituetan dabilena beraz, lanaldiak murrizteko beharra dagoenean emakumeak murrizten du eta modu horretan gizona ekonomikoki askea+gainera ibilbide profesionala jorratzen jarraitu.
- Segregazioa edo diskriminazio bertikala: emakumeen lan promozioarekin loturik. Hauek arazo larriak izaten dituzte erabakitze postuetara edo kargu altuetara iristeko. Gainera emakume langile askori mugak ezartzen zaie hori zailtzeko.
- Segregazioa edo diskriminazio horizontala: sexuaren araberako lan banaketaren ondorioa. Hau da, lan batzuk emakumezkoena eta besteak gizonaenak emakumeak gizonaenak lanak egiteko zailtasunak dituzte.
- Soldata diskriminazioa: lan berdina egiteagatik emakumeek jasotzen duten diru kopurua beraien lankide gizona baino baxuagoa da.



### **5.3. BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK. OINARRIZKO PRINTZIOAK ETA EGITURA INSTITUZIONALA**

Berdintasun politikak estatu parlamentarioetan sortzen dira eta esku hartze helburu zehatz bat lortzeko ematen diren erabakitze, tresna eta bultzakada egitura multzo bezala ulertzen dira.

Aukera berdintasunerako politikek instituzio publikoek aurrera eramandako neurri eta estrategia ezberdinak dira eta hauek emakumeek gizartean berdintasunaren parte hartzeko oztopo eta trabak gainditzen lagundu nahi dute.

Berdintasun politiken azken helb gizon/emak aukera berdina izan ditzaten testuinguru egokia sortzea da: gizarte moduan esparru sozial, pribatu, kultural, ekonomiko eta politikoan aurreratzea genero rolek eta estereotipoek ezarritako mugak gaindituz.

Emakume guztiek jasaten zuten diskriminazio formala eta errealak gainditzera zuzenduta zeuden oinarritzko akordio eta konpromiso instituzionalak hartu ziren.

Gaur egun arte aurrera eramandako politikek bi orientabide nagusi izan dituzte; ekintza positiborako neurriak eta genero zeharkakotasuna.

Ekintza positiborako neurriak generoa, arraza, adina edo pertsonaren bestelako ezaugarrietatik sortutako desabantaila egoerak orekatzea zuzenduta dauden neurriak dira. Sexuaren araberako diskriminazioa bi motatakoa:

- Diskriminazio zuzena; ikuste erraza da, norbaitenganako tratu kaltegarriak modu argi batean ematen da horren arrazoi bakarra emakumea izatea delarik.
- Zeharkako diskriminazioa: ikusten zailagoa da, itxurazko neutraltasun batean oinarritzen baita nahiz eta praktikan erabaki horren ondorioak beti jotzen duten emakumeen kontra.
  - Eremu pribatua, zereginen eta arduren banaketa desorekatsua.
  - Hezkuntza, eskolako materialak maskulinizatuak
  - Lan eremua, hainbat praktika gizonezkoentzat
  - Komunikabideak, estereotipo sexisten mantenua

Zeharkako diskriminazioa aurreikusteko bi baliabide erabili behar; genero ikuspegiaren integrazioa eta inpaktu informea. Genero perspektibari esker zeharkako diskriminazioarekin loturiko joerak, jarrerak eta prozedurak aurreikusi daitezke.

Mainstreaming-a: esku hartze publiko guzian genero ikuspegia modu sistematikoan kontuan hartzen da. Politika publiko eta arau guztiek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela ziurtatzean da eta horrela, baliozko zeharkako egoerak ekiditu/gainditzen.

## **6.GAIA: ETNIZITATEA ETA MIGRAZIOAREN INGURUKO INTERPRETAZIO ANTROPOLOGIKOAK**

### **6.1. “Etnia eta etnizitatea”. Cristina Blanco-ren liburuaren laburpena**

Orientazio hau, jatorriz konnotazio arrazazko eta biologikoetatik estali egin zen. 1970tik aurrera, etnia eskusibotasun esentzialistatik berreskuratu zen nahiz eta erabileraren kontzeptua aldatu nahi izan zen.

Etnia, etnizitatea edo talde etnikoaren definizio asko baina guztietan orientazio bikoitza antzeman daiteke; esentzialista/objektibista eta erlazionala/subjektibista.

Lehenengoan, jatorri, historia, arraza, hizkuntza eta ezaugarri kulturalak berdinak. Hori izateak kohesio sentimendu partekatu+nortasun kontzientzia komuna izatea ematen.

Bigarrengoan, taldean esanahiaren elementu mugatzaile nagusia esleipena edo atxikipena

Bi orientabideek ezaugarri komuna; talde etnikoaz aritzean, subjektu ezberdinez osatutako komunitateaz ari gara. Subjektu hauek beraien artean berdinak sentitu, beraz, beste subjektu eta komunitateekiko ezberdinak.

(Ikuspegi esentzialista) Elementu kultural objektiboak, etnien existentziaren adierazleak.

(Ikuspegi erlazionala) Etniaren interpretazio esentzialista, talde etnikoen azterketa, elkarrekintzarako talde sozialenagatik ordezkatzeko hasten da.

Kultura 2.mailako elementu bat da etnizitatearen definizioan baina garrantzitsua da, nortasuna mantentzeko erreferentziatzeko eduki sinbolikoa eskaintzen duen heinean.

Etnizitatean, funtsezkoa identitate kolektiboa da: talde etniko bat beste baten atxikipenagatik bereizten dela baieztatu dezakegu.

Barth antropologoaren lanaren lau ideia garrantzitsuenak:

1. Etnia taldea subjektiboki beste bati edo batzuei aurre egiten diona.
2. Garai guztietan eman diren herrialdeen arteko desberdintze prozesuetan gertatu:
3. Etnia baten historia etnia horrek besteekiko erakutsi duen aldakortasunaren historia da.
4. Dikotomizazio etnikoaren funtzio soziala bikoitza: barruan estatusa eskaini kanpoan etnien arteko erlazioak arautzen ditu.

Ez da “gu” sentimendua desagertu dela, baizik eta “gu” horren edukia partikularismotik unibertsalismora pasa da.

Modernizazio prozesu honek, migrazio prozesuei atxikitu: eraldakuntza sozialaren indarrak

Tokiz aldatzea norbanakoari sortarazten dion kokapen ezak, bere energia eraikitzaileak sustatzen ditu.

Gizadiaren historiak, toki eta denbora guztietan, subjektuek giza talde zehatz baten kide sentitzearen beharraz hitz egiten digu.

Zibilizazio modernoaren eraginaren ondorioz, kultura bat desagertu / posible badu beste kulturekiko harremana ukatu, baina mugako bi jarrera hauen artean akulturazioak daude.

Eduki kulturalak aldatzen badira ere, honek ez du esan nahi norbanakoarentzat esanguratsua den gizatalde batekin identifikatzeko beharra desagertzen denik. Gizakiak beti du beharrezkoa gertuko eta esanguratsua den gizatalde bati atxikitzea.

Nazio nortasunaren printzipioaren faktore erabakigarria kontzientziaren faktore subjektiboa. Beti agertzen da beste taldeetatik bereizten den taldeen partaidea izatearen kontzientzia.

Hau dela eta kontzientzia edozein talde etnikoren amankomuneko ezaugarria izango da. Kontzientzia hau, beste taldeetatik ezberdina sentitzea baino ez da.

## **6.2. “INMIGRAZIOA ETA ETNIZITATEA”. CRISTINA BLANCOREN LIBURUAREN LABURPENA**

Immigrazioak, ondorioak ditu bai talde hartzailearentzat nahiz etorkinentzat.

Immigrante-korrontea txikia:, elkarreragin prozesuen ardura nagusia etorkinengan geratzen.

Aldiz, etorkinen masa handia eta jarraikorra denean, hainbat arazo sozial: Gizarte batean etorkinen talde lokalizatuak daudenean, elkarrekintzaren beharrari erantzun soziala eman.

Benetako arazoa bertakoak eta etorkinak talde etniko ezberdinetakoak direnean.

Migrazio handiak arazo etniko nag. jatorri kultural ezberdinak dituzten taldeak harremanetan.

Hau dela eta, immigrazioak etnizitatea sortu, ‘beste’-a ‘gure’ lurraldean sartzen da.

‘Gu’-aren inguruko kategoriak oso zabalak dira: Bada, beraz, ‘gu’ unibertsal bat (giza espeziea).

Hauek, norbanakoengan duten eragina handia: pertsonen arteko harreman zuzenak ematen baitira bertan. Badira erdibideko kategoriak hainbat gizatalde sozialei dagozkienak (langileria, emakumea, gizona, gaztea...).

Talde nortasun hau kontziente eta ikusgarria egitean eta 'besteak' baztertzeko nahiz 'besteetatik' bereizteko indar nahikoa duenean, talde etniko baten aurrean egongo gara.

'Beste'-aren inguruko def estereotipoetan eraikiak. Etorkinaren adierazpen ezkorrek bi motatakoak izan daitezke: 1. Oinarri sozioekonomikoa. 2. Oinarri politiko-nazionala...

Etorkina izatea, askotan, nahikoa da gizarte hartzaileak gaitzespen jarrera bat erakusteko.

### **6.3. INTEGRAZIO EREDUAK**

Migrazioa eta kontaktu kulturalari dagokionez, lau integrazio eredu ezagutzen dira:

Asimilazioa, Melting pot, Multikulturalitatea eta Interkulturalitatea

#### **6.3.1. Asimilazioa**

Kultur eta talde sozial ezberdinei dagokienez teorikoki proposatu zen 1. integrazio eredu. Abiapuntua Estatu Batuak 1920

Asimilazioa, talde hegemonikoaren erreakzioa da, kultur nahasketaren ondorioz gizarte hegemonia galtzeko beldurrari erantzun bat.

Honen arabera, etorkinek gehiengo kulturalaren balore/arauak barneratu behar dituzte (etnozentrismoa) eta zeregin hau hauen ardura da.

Etorkinak gizarte hartzailearen bizi duen egokitzapen prozesua da.

Honek, gizarte hartzaile horren kultura eta ohiturak bereganatu behar ditu. Ondorioz, etorkinen integrazioa gizarte hegemonikoaren eredu kulturala bereganatzearen arabera.

Beraz, egokitzapen prozesu honen ardura osoa etorkinarengan dago, bere erantzukizuna baita gizarte hartzailearen bizimodua eta kultura bereganatzea.

Honek sorburuko nortasuna galdu eta gizarte hartzailearena bereganatzea suposatzen du.

### **6.3.2. Meltin-pot**

1940 Estatu Batuetan, eredu honen arabera, gizartearen kide guztiak fusionatu egin behar ziren. Fusio honen ondorioz gizarte berri bat sortuko litzateke, ezaugarri kultural eta arrazazko baturaren eta nahastearen ondorioz eratutakoa.

Aurrekoarekin alderatuz, integrazio eredu honek gizartekide guztiak inplikatzen ditu. Teoria mailan oso aurrerakoia izan zen gizarte berri bat aldarrikatzen duelako,

Modu honetan, kultura eta arraza guztiak gizarte berri honen protagonistak izango lirateke. Baina errealitatean kultura gutxiengodunak, hegemonikoaren ezaugarriak bereganatzen dituela da, beraz asimilazioan erori.

Integrazio ereduak irizpide komuna konpartitu: etorkinek/bertakoek, ez diuzte haien nortasun ezaugarriak galdu nahi. Beraz, integrazio eredu batek hau errespetatu beharko luke.

Elkarbizitzarako printzipioek, taldeen berezitasun kulturalak bere neurrian mantentzeko aukera eskaini behar.

Modu honetan, taldearen berriazko kultur nortasuna iraunarazi eta, gizarte berrian parte izateko nahia elkarlotuko dira.

### **6.3.3. Multikulturalitatea**

Gizarte baten barruan, kultura/nortasun etniko anitzak elkarrekin bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du.

Errealitate honek, talde kohesioa sustatzen du:

Kultura bakoitzak, testuinguru anitz honetan, bere nortasuna mantentzeko aukera dauka eta era berean, kultur-kide guztien arteko elkarbizitza posible izango da.

### **6.3.4. Interkulturalitatea**

Multikulturalitateak inplikatzen dituen mugak gainditzeko intentzioarekin sortua.

Honen arabera, positibotzat jotzen diren kulturen arteko erlazio elkarreraginean ereduak lortzearen aldeko jarrera litzateke

Eredu honek, beraz, jatorri kultural guztien errespetuaz gain, kulturalki ezberdinak diren subjektu eta erakundeen arteko elkarrekintza edo interakzioa aldarrikatzen du eta helburu honetarako aproposak diren estrategiak bultzatzen ditu.

## **7. GAIA. ONDORIOAK. ANTROPOLOGIAREN EKARPENAK**

### **GIZARTE LANGINTZARA**

#### **7.1. ANTROPOLOGIA APLIKATUAREN EKARPENAK GIZARTE-LANGINTZARA**

Antropologiak izaera guztiz praktikoa duen gizarte langintzari edozein giza egitatetan esku-hartzeko beharrezkoa den aurretiko ezagutza teorikoa eskaintzen dio.

Hala ere, ikuspegi holistikotik abiatuta, antropologiaren ekarpenak esparru teorikotik baino haratago doaz.

Conrad Phillip Kottak: antropologia norbanakoen, gizataldeen nahiz komunitateen ezaugarri kulturalen aniztasuna modu holistiko, sistematiko eta konparatibo batean aztertzen duen gizarte zientzia da. Izaera konparatzailea du (bereizgarria zientzitatik)

Edozein kasutan, antropologiak hiru ekarpenak G.Lri: teorikoak/metodologiko/etikoak.

Antropologia aplikatuaren ikergaiak, Kultura eta aniztasun kulturala dira. Antropologia aplikatuak teoria ere erabiltzen du. Errealitatean izaera teorikoa/praktikoa du.

Zentzu honetan, antropologia aplikatuak testuinguru soziokulturala ezagutzeko informazio baliogarria eskaintzeaz gain, aldaketa soziala sustatzeko diagnostikoa eta estrategiak ere proposatzen ditu.

Laura Bartoli:, antropologia aplikatuak norbanako eta gizataldeen bizi baldintzen egoera hobetzeko beharrezkoak diren teoriak, metodoak eta teknikak eskaintzen ditu.

Ondorioz, antropologia aplikatuaren helburua guztiz praktikoa izan arren egoera sozial eta kulturalari konponbidea bilatzea du helburu.

Gizarte langintzaren helburua arazo sozialen prebentzioa da.

Modu honetan pertsonen, familien, taldeen, erakundeen nahiz komunitateen gizarteratzea sustatzen denez, antropologia aplikatuaren ekarpenak ezinbestekoak ditu.

Horrela, gizarte bateratua lortuko da non gizakideen bizi kalitatea eta ongizatea errealitatea izaten den.

### **7.1.1. Ekarpn teorikoak**

Antropologia aplikatuak, gizarte langintzak esku hartu behar duen errealitate horretaz beharrezkoa duen aurretiko ezagutza errealista eta sakona eskaintzen dio.

Antropologia aplikatuak eskaintzen duen ezagutza teorikoak gizarte langileari ahalbidetzen dio haren lana zuzendu behar duen gizataldearen egitura soziala, prozesu soziala, aldaketa soziala, ohiturak eta orokorrean esanda, kultura bera hobeto ezagutzen eta ulertzen.

Ezinbestekoa da, batez ere, gizarte langileek beti 'bestea'-rekin lan egiten dutela kontutan izaten badugu. Baita 'bestari' buruzko ezagutza izatea etnozentrismo/aurreiritzirik ez izateko.

Laburbilduz, gizarte antropologiak errealitate sozialak eskaintzen duen ezagutza holistiko eta transkulturalari esker, gizarte langilea gai izan daiteke edozein arazo sozial aztertzen eta horren gainean esku-hartze bat diseinatzen, planifikatzen eta aurrera eramaten.

### **7.1.2. Ekarpn metodologikoak**

Antropologia aplikatuak gizarte langintzari egin diezazkion ekarpn metodologikoak ezagutzara heltzeko erabiltzen duen metodo antropologikoaren abantailatan dago.

Metodo antropologikoaren ekarpn garrantzitsuena 1.fase etnografikoan dago edozein komunitateren ikerketa intentsiboa egiteko inf IN SITU jasotzeko erabilitako teknikei esker.

Metodo antropologikoak gizarte langintzaren profesionala aztergai duen komunitatearekin harremanetan jartzen du.

Honek, aurrerago esku hartzean bertan emango diren beste faseetarako beharrezkoak diren ahalmenak garatzen lagunduko du.

Laburbilduz, metodo antropologikoak gizarte langileari bere lana burutzeko beharrezkoa duen inf tokian bertan jasotzea ahalbidetzen dio lehen eskuko inf. baliogarria lortzeko.

### **7.1.3. Ekarpn etikoak**

Metodo antropologikoaren ekarpn garrantzitsuena, G.Lren profesionalak esku hartu behar duen komunitatearekin harremanetan jartzea;

Baina, antropologia aplikatuak ezagutza transkulturala/lekuan lekuko inf jaso eskeini: aldeztatik aurretik pertsonekin lan egiteko beharrezkoak diren hainbat gaitasun etiko ondo garatzea.

Zentzu honetan, antropologia aplikatuak 'bestea'-rekin lan egiten ikasteko beharrezkoak diren gaitasunak eskaini.

Antropologiaren ekarpen etikorik nagusia giza aniztasuna antzematen, ulertzen eta errespetatzen jakitea.

Honi esker, gure praktika profesionalean edozein 'zentrismo' mota ekiditen saia gaitzke.

'Bestea' ezinbesteko kategoria analitikoa antropologiarentzat. 'beste'-tzat, 'ni' edo 'gu' ez garen beste guztia hartzeko joera dugu. Beraz, munduko gizatalde guztiek dute 'beste'-a.

Honi esker pertsonok gure nortasuna eraiki eta azpimarratzen dugu. Hontaz kontziente izan behar gara lanean ari garen momentu oro 'bestea'-k gure tokitik begiratzea ekiditeko.

Modu honetan, 'besteak' gure eskema kulturaletik azaltzea/ezagutzea ekidin behar dugu. Gizatalde edo kultura bakoitza haren arau/balio sistemaren arabera aztertu beharko dugulak

Beraz, antropologia aplikatuak zerbitzu sozialen erabiltzaileak diren pertsonekin lan egiteko behar-beharrezkoak diren hainbat abilezi eskaintzen dizkio.

Zentzu honetan, ekarpen etiko nagusia: antropologiari esker gizarte langileak lanean ari denean aurreiritziak alde batera uzten ikasten duela da.

Konfiantza, errespetua, pazientzia, etab. dira gizarte langileak landu behar dituen bestelako gaitasunak eta hauek, metodo antropologikoaren garapenari esker ere bereganatu daitezke.